

Osatzenen Jardunaldien tailerrak

2017 Azaroak 18, larunbata

Goizeko 9:00etatik-11:30etara

1. **Etika Narratiboa** (Maite Cruz Piqueras)

Soziologoa naiz eta Osasun publikoko andaluziako eskolan (EASP) (bio)etikako hainbat proiektutan lan egiten dut etika narratiboan eta ikerkuntza kualitatitiboan interesaturik bereziki. Zenbaki gutxiago, beste zenbait letra.

Laburpena: Zinea, literatura, musika eta artea era orokorrean baliabide gisa harturik, ulertu, ezagutu ez edota beldurra ematen digun hori konprenitzen lagun diezaguke. Batzutan gaixotasunarekin erlazioan, zientzia medikoen paradigma zientifikoa txikiegi gera dakiguke, batez ere gaixotasun, sufrimentua edota heriotzarekin harremanetan jarri behar garenean. Tailer hau, medikuntza eta etika narratiboaren oinarriko suposizioetaik abiatuta, Atticus Finchen hitzetan (Matar a un Ruiseñor) “bestearen oinetakoak janztea” ahalbidetuko duten hainbat material narratibo ikustatu eta aztertzeko gonbitea da.

2. **Depreskripzioa** “**Polimedicado**” taldea (Enrique Gavilán, Mikel Baza, Antonio Villafaina, Belén Sánchez)

Aurrez aurreko ordu 2 + Lehenagotiko lan birtuala 8 ordu.

Gehienezko ikasleak 20.

Tailerrean izena emateko azken eguna: Urriak 23.

3. **Paziente arraroak edo mediku ezerosoak** (Miguel García Ribes. Familia medikuaren kontsultan gaixotasun arraroak. Cocolino Osasun Zentroa (Castro Urdiales). SEMFyC-en Genetika kliniko eta gaixotasun arraroen lan taldeko koordinatzailea. Patrocinio Verde Gonzalez, Familia medikua, Barrio del Pilar Osasun zentroa (Madrid). SEMFyV-en Genetika kliniko eta gaixotasun arraroen lan taldekidea)

4. **Sormena Osasunean** (Gotzone Tutor Ercilla)

Kultur kudeatzailea naiz, eta hezkuntza eta sormenaren erabilerarekin zer ikusia duten proiektuetan ibiltzen naiz lanean, komunitateak pizten eta zirikatzen.

Egunerokotasunean sortzen diren zalantza eta kezka gehien erantzuna komunitatean dagoela uste dut, eta horri buruz hitz egingo dugu elkarrekin “sormena osasunean lantegian”: Sormenak nola funtzionatzen duen ulertu eta biziko dugu, kontsultan egunerokotasunean nola lagundu gaitzakeen. Gure sormena garatzeko eta martxan jartzeko tresna batzuk jorratuko ditugu, jolasa eta bizipena medio, eta hori dena Euskaraz!! Zeren zain zaude? ez pentsatu eta ekin!

5. Euskadiko populazioaren osasun adierazleetan desberdintasun geografikoak (Imanol Montoya, estadistikan doktorea, bioestadistiko lanetan 15 urteko eskarmentaurekin. Dublineko unibertsitatean, Osakidetzan zein Eusko Jaurlaritzan lanean aritua. Ereku txikitako analisi estadistikoetan aditua.)

Laburpena: Betidanik esan izan da beste eskualde zein herrialdeekin alderatuta, Euskadin osasun baldintza hobek ditugula. Diskurtso honek abiapuntu zital bat du, izan ere Euskal biztanleria guztiak osasun baldintzei buruz gabiltzanean, era berean jokatzen duela aurreuposatzen bait du. Hau egia ote da? Ba ez, eta orain gainera beraz froga dezakegu. Tailer honetan mapak eta maila geografikoetan lorturiko beste zenbait emaitza erakutsiko ditugu, zeinetan Euskadin ezberdintasun esanguratsuak daudela ikusten diren. Hainbat ikerlarik eginiko lanaren balioa azpimarratuko dugu, kontatzeko interesik ez dagoela ematen duen, errealitate bat azaleratzen.

6. Eskaera desmedikalizatu eta sufrimendua berradierazten (Alberto Ortiz Lobo, psikiatra, "Salamanca" Osasun mentaleko zentroa, Madrid)

Laburpena: Tailerraren helburuak honako hauek dira; sufrimendu psikikoaren medikalizazioa eta honek dakarren kaltearen gaineko hausnarketa egitea, esku-hartzera eramaten gaituen baldintzapen pertsonal eta profesionalak aztertzea eta pazienteekin beraien ondoeza berradierazten ahalbidetzen diguten trebetasun psikoterapeutikoetan entrenatzea.

Gehienezko partehartzaileak: 24 pertsona

7. Desburokratizazioa. Lehen mailako arretan "Ez egiteko" iharduera burokratikoaren aurreko gomendioak (Lex Artis Taldea. Somamfyc Hizlariak: Ana Ballarín González. El Greco osasun zentroa. Getafe. Madril. Medikuntzan doktorea)

Helburuak:

-Familia mediku baten kontsultan zein lan burokratiko ekin daitekeen ezagutzea

-Lehen mailako arretan lan burokratikoak gutxiagotzeko estrategiak partekatzea.

-Kontsultatutik edukia "ateratzeko" jarduerak proposatu: Familia medikuaren lanegunak aktibitate asistentziala, prebentziokoa eta osasunaren sustapenekoak izateaz gain, osasun arretarako berebizikoa diren dokumentazio jarduerak osotzen dituzte, ala nola historia klinikoan errefistrotza, errezetak, nahitanahiezko aitortpeneko gaixotasunen komunikazioa. Beste zenbait jarduera burokratikoak, pazienteen osasunean ez daukate interesik, ez dute erlazio asistentzialean onurarik ekarzen eta beste jarduerentzako denbora lapurtu egiten digute. Kasu batzuetan mediku-paziente erlazioan ezkorrak bihurtzen dira. Familia medikuek "hau, gurea ez den lana" dela sentitzen dugu. Jarduera guzti hauek birpasatu nahi ditugu eta egunerokotasunean aritzeko aholkuak eraiki etorkizunean jarduera hauek gutxitzeko asmoz.